



**NIK, ARETXABALETAKO (GIPIZKOA) UDALEKO IDAZKARIA NAIZEN FCO. JAVIER MENDIZABAL GARATE JAUNAK, ONDORENGO HAU**

**ZIURTATZEN DUT:**

2020ko martxoaren 11n izandako Ohiko Osoko bilkuran, beste batzuen artean, honako erabaki hau hartu zela:

**HAPOaren espedienteari hasiera eman eta herritarren partaidetza programa onartu**

Ion Albizuk adierazi du HAPOa idazteko espedienteari hasiera emateko erabakia hartzea proposatzen dela legeak horrela eskatzen duelako. Hasiera honekin batera partaidetza programa onartzea proposatzen da. Programa honetan HAPOaren garapenari buruzko ideia jasotzen da eta baita ere nola egingo den. Partaidetza programa hau orokorra bada ere, gero enpresa bat kontratatuko da gehiago zehazteko. Oso inportantea da partaidetza; izan ere parte hartzea txikia izaten dela iruditzen bazaigu ere, udalak partaidetza hori bultzatu egin behar du eta ikusi arrakasta izaten duen. Partaidetza ez da mugatuko borondatezkoa izatera, udala bera ere herritarrengana joan behar baitu.

Alkatearen ustez partaidetzan interesa pizten bada, jendeak parte hartuko du eta adibide bezala Sankurtz kaleko erakusketarekin gertatu dena ipini du. Ion Albizuk erantzun dio udalak interesa pizten asmatu behar duela eta horretarako, besteen artean, komunikabideen laguntza beharrezkoa da.

Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabaki da:

LEHENA. Aretxabaletako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko espedienteari hasiera eman.

BIGARRENA: Herritarrek parte hartzeko programa onartu.

**Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, honako ziurtagiri hau egiten dut, Aretxabaletan, alkatearen oniritziarekin.**

O.E.

ALKATEA